



Laster hasiko zen nekazaritza-kanpaina Huelvan, eta enpresariak, urtero bezala, langileak beharko zituzten marrubiak eta mugurdiak landatzeko eta biltzeko.

Horrela iristen dira sasoikako emakume nekazari marokoarrak (6.000 inguru) urtero Huelvako soroetara, beren sorterrian, Marokon, hautatuak izan ondoren. Enpresa espainiarrek han bilatzen dituzte langileak; izan ere, lan-baldintzak ez dira behar bezain onak Espainiako jendearentzat. Ondoren, Kalima ezagutuko duzu, sasoikako emakume langile bat.

HONA HEMEN **KALIMAREN ISTORIOA**

Kalima Salen bizi da, Rabaten (Maroko) ondoko hiri batean, senarra eta bere bost seme-alabekin. **Sasoiko langile gisa egin izan du lan azken hiru urteetan** (2017-2019) Espainian. Baina ezingo du berriro lan hori egin.

Otsailean, seme-alabak senarrarekin eta haren familiarekin utzi zituen, ekainera bitartean marrubiak biltzera etortzeko. Aurreko urteetan bezala, **Kalima Marrakexera joan zen astebete lehenago, hautaketa-prozesurako.**

Goizean goizetik, hotzari aurre egiteko mantaz eta txabusinaz estalita, ehunka emakume pilatu ziren Marrakexeko Nekazaritza Prestakuntzako Zentroaren ate aurrean.

Huelvako marrubi-ekoizpenaren ugazaben ordezkariak galdera asko egin zizkieten bere lan-esperientziari buruz. Orduan, **Kalimak, instintiboki, eskuak erakutsi zizkien: soroetan lan egitera ohituta dagoenaren esku zailduak.**

Baina, batez ere, familiari buruz galdetu zioten: seme-alabak, adinak, senarra eta abar. **Familia-egoera erabakigarria da «atxikimendu-elementu» gisa:** 25 urtetik 45 urtera bitarteko emakume seme-alabadunak bilatzen dituzte. **Kalima lau hilabetez lan egiteko hautatu zuten: egunean 40 euro jasoko zituen, egunean zazpi ordu lan eginez.**



KALIMA



Caritas

Kalima ohituta zegoen lanegun gogorretara eta etxebizitzaren baldintza prekarioetara: aurrefabrikatutako espazioak, gelako sei litera, dutxarrik ez, sukalderik ez...

Dena den, inoiz ez zuen pentsatu ere egingo beste emakume batzuek, begiak malkotan zituztela, kontatutakoa gertatuko zitzaionik. **Kalimak zerbait sumatzen zuen, azaltzen zaila baina gustatzen ez zitzaiona.** Berehala egiaztatu zuen sena ez zebilela oker; **Juanek, langile-buruak, hitzen bidez abusatzen, mehatxatzen eta hertsatzen zituen langileak.**

Arratsalde batean, marrubiak biltzen aritu ondoren, Juanek, Kalima bortxatu zuen biltegian.

KALIMAK BORTXAKETA SALATU ZUEN

Kalimak, antzeko egoerak pairatu dituzten emakumeek ez bezala, egoera salatzea erabaki zuen. **Bazekien horrek betiko aldatuko zuela bere bizitza.**

Nahiz eta bere familia ekonomikoki bere mende egon, enpresariak mehatxu egin (esan zion ez zuela beste inork kontratatuko) ezta **hizkuntza eta legeak oso ongi ez jakiteak, ez zuten atzera jo arazi.**

Salaketa jarri, eta enpresak lanetik bota zuen. Ez zuen gertatutakoa frogatzeko modurik, **eta ez zioten sinetsi. Kalimak uko egin zion Marokora itzultzeari** -agian han ere ez zuen laguntzarik aurkituko- **justizia nahi baitzuen. Horrez gain, beldurra ematen zion bere herrira itzultzeak, agian jendeak juzgatu egingo baitzuen.**

Haren bisa ekainean amaitu zen, eta orain, Espainian dago, irregulartasun-egoeran. Almerian, komunitate marokoar bat dago, eta agian han plastikozko berotegietan lan egin ahal izango luke kontraturik gabe. Han gera liteke, eta gela bat ordaindu, kortijo okupatuetako batean. Kalimak zer egin pentsatu behar du. **Badaki jada ez duela kontraturik izango, ez eta arreta medikorik ere, eta babesgabe sentitzen da.**

Enplegu-emaeleek haurdun utzitako emakumeetako batzuk Caritasera jotzen dute zer egin dezaketzen ikusteko eta laguntza aurkitzeko. **Isilarazitako egoerak.**



EGIN ZURE HITZ-HODEIA

Aukeratu hitz batzuk ikusi berri duzun istorioa eta iradokitzen dizkizun ideia eta sentimenduak laburbiltzeko. Hona hemen hiru adibide.

INDARKERIA

BELDURRA

BABESIK EZA

ISTORIOA ULERTZEKO **GAKO BATZUK**

- **Atzerritar Legeak «sorterrian eginiko kontratazioen kudeaketa kolektiboa» deritzona arautzen du** (39. artikulua. Atzerritarrei buruzko Lege Organikoa). Eredu horren arabera, zilegi da Espainian ez dauden eta bizi ez diren langileak modu programatuan kontratatzea. Langile horiek beren sorterrietan hautatzen dituzte, enpresek hala eskatuta.
- **Erregelamenduan** adierazten denez, **lanpostuak bertako pertonekin edo bertan bizi diren atzerriko pertonekin bete ezin direnean** soilik erabil daiteke kontratazio-prozedura hori (167-170 artikulua, Atzerritarrei buruzko Lege Organikoaren erregelamendua).
- **Fruitu gorrien ekoizpenaren %90 Huelvan lantzen da, eta Espainia da Europako marrubi-ekoizle nagusia.**
- **Huelvan marrubiak biltzeko kontratazioak Marokon egiten dira**, Marokoko Lan Agentzia Nazionalaren (Anapec) bidez, **Huelvako nekazaritza-erakundeekin elkar harturik. Ia eskusiboki, 18 urtetik 45 urtera bitarteko emakumeak hautatzen dituzte, beren kargura seme-alaba adingabeak dituztenak**, eta hori ez dator bat kontratazio horiek arautzen dituen Ministro Aginduan eta Espainiako Konstituzioaren 14. eta 35.1 artikuluetan ezartzen diren diskriminaziorik gabeko egoerekin.
- **Sasoikako langile hauen lan-baldintzak behin eta berriz salatu dira** ([denuncian a España ante la ONU por violar los derechos humanos de las temporeras de la fresa en la pandemia](#)). Eta 2008. urteaz geroztik, behin eta berriz egin dira **salaketak bortxaketengatik, abusuengatik eta sexu-indarkeriagatik**. ("[Violadas en los campos de Europa](#)", de Pascale Müller eta Stefania Prandi, Buzfeed, 2018ko maiatzaren 18koa. "[El precio de denunciar los abusos en la fresa](#)", El País, 2019ko martxoaren 25koa. "[Trabajadoras de los campos de fresas de España denuncian abusos](#)", The New York Times, 2019ko uztailaren 22koa).
- **INFORMAZIO GEHIAGO:**
 - + Xehetasun gehiago nahi izanez gero, [irakurri txosten hau](#).
 - + Ingelesezko azpтитulu errazak irakurtzera animatzen bazara, **3 minutuko bideo latz hau ikus dezakezu:** "[Strawberry workers in Spain](#)".

GURE ERROETAN

Gogoratzeko moduko zenbait aipu:

- “Langileen eskubideak, gainerako eskubideak bezala, pertsonen gizatasunean eta duintasun transzendentean oinarritzen dira. Elizaren irakaspén sozialak egokitzen jo du horietako batzuk azpimarratzea, eta aditzera eman du komeni dela ordenamendu juridikoetan aintzatestea: soldata justua jasotzeko eskubidea; atsedena hartzeko eskubidea; «langileen osasun fisikoari eta integritate moralari kalterik egiten ez dioten lan-giroak eta ekoizpen-prozesuak» izateko eskubidea.” ([Elizaren Irakasbide Sozialaren Laburpena, 301.a](#)).
- “Aberatsek kontu handiz ibili behar dute langileen interesei inolako kalterik ez egiteko, indarkeriaren, iruzurren eta lukurreriazko trikimailuen bidez; are, behar bezala prestatuta ez daudenean injustiziaren eta bidegabekeriaren kontra egiteko, eta, horregatik, zenbat eta ahulagoa haien ekonomia, hainbat eta sakratuagotzat hartu behar da.” Rerum Novarum. (Leon XIII.a 1891)

TALDEAN EZTABAIDATZEKO GALDERAK

- > **Zure ustez, zergatik gertatzen dira** sasoikako emakume langileen kontrako **egoera horiek urtez urte?**
- > **Zer neurri** har litezke? Nork hartu beharko lituzke neurri horiek?
- > **Caritasek sasoikako langileen kokaguneetan egiten du lan; langileetako gehienak afrikarrak dira.** Nahiz eta urtero Marokora joaten diren langile bila, **Legeak ez du onartzen pertsona horiek kontratatzea.** Zure ustez, zergatik da hori horrela?